



BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure jatetxeak bezeroak lortuko ditu, inoiz sortu ez den esperientzia paregabe bat saltzen ari delako.

Esperientzia bat saltzen ari gara, bere eksklusibotasunagatik oso gutxitan errepikatu ahal izango dena; beraz, bezeroak prest egongo lirateke ohiko jatetxe batean baino diru gehiago ordaintzeko.

Gure asmoa ez da bezeroak mantentzea, baizik eta gure jatetxetik asko eta asko pasatzea.

Esperientzia horrek duen konplexutasunagatik eta prezio handiagatik, askok ezin dute behin baino gehiagotan gure jatetxetik igaro. Beraz, gure bezero-politika bezero berriak ekartzean oinarrituko da, eta ez dauzkagunei eustean. Noski, mantendu nahi genituzke, baina hori ez da gure helburu nagusia.

Ezin dugu asko egin bezeroak mantentzeko, hala ere, gure jatetxeko txartel bat sortuko dugu gure bezeroentzat, zenbat eta gehiago etorri, egingo diegun deskontua handiagoa izango da, %40ko deskontua eduki arte.

Gure jatetxea jendeak ezagutzeko internet bidez publizitatea egingo dugu, sare sozial garrantzitsuetan iragarkiak ipintzen eta gure kontuetan partekatzen, horrela jende gaztea jatetxea ezagutuko du. Fisikoki ere egingo dugu publizitatea, kartelak jarriko ditugu Artearen errepide nagusian, ia jende guztia sartzen baita bertatik. Autobus geltokietan ere jarriko ditugu, txarra egiten duenean jende askok garraio publikoa hartzea erabakitzen baitu. Irratian iragarki bat egitea iruditu zaigu ideia ona, gure bezero gehienek kotxean garraiatzen dutelako, gehienak helduak dira eta.



Galactic brunch



Galactic brunch